

Ospakizun egokituak

Ezohikoak izan dira aurtengo sanpedroak ere; eragileek ahalegin berezia egin dute egoerara egokitutako jarduerak burutzeko / 2-9

Udako aisiaz gozatzeko

Ttakun KEk egunotan abiatu ditu aurtengo udarako Udako Txoko eta udaleku itxiak / 11

Eskualdeko autobus zerbitzua berri du Gipuzkoako Foru Aldundiak; 30 unitate ari dira lanean / 10

Peru Urdanpilleta herritarrek V. Umonea torneoaren txapela jantzi du Hernaniko Deskargarekin batera / 12

MERKEALDIA

MERKEALDIA

MERKEALDIA



R.P.S. 91/20

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   

Adin eta gustu guztientzako

Kultur ekintza ugari herrian

Askotariko kultur ekintzetan parte hartzen ari dira lasarteoriatarrek, egunotan. San Pedro Jairik ez, baina kultur ekintza ezberdinez betetako egitaraua antolatu du Lasarte-Oriako Udalak ekainerako eta uztaileko, eta harrera ona izaten ari dira. Festak beharko luketen egunei erreparatuta, ekainaren 25ean Makulu Ken musika taldea izan zen Manuel Lekuona kultur etxeko agertokian; euskal afrobeat doinuekin gozarazi zieten aretora gerturatutakoei. Ekainaren 26an, berriz, lehenengo bakarriketa saioa egin zuten. Nerea Garmendia eta Santi Rodriguezen umore saioekin ederki egin zuten barre herritarrek, eta, hurrengo egunean, aldiz, Nafarroako jotak entzuteko aukera izan zuten ikus-entzuleek. Egun berea, baina arratsaldean, etxeko txikienek *Bat, bi hiru... magia!* ikuskizunarekin entretenitu ziren. Ekainaren 28an, umore bakarriketen bigarren saioan Mikel Bermejo herritarra eta JJ Vaquero izan ziren protagonista nagusiak, eta, 29an, San Pedro Egunean, ere izan zen ekitaldirik: *Salam* haur antzerkia eta bertso saioa.



Soinean zeramatzan zortzi kamisetek egituratu zuten Nerea Garmendia aktorearen bakarriketa. TXINTXARRI



Munduan barrena egindako bidaia izan zuen Santi Rodriguez aktoreak bere bakarriketaren ardatza. TXINTXARRI



Makulu Ken musika talde lasarteoriatarrek lehen aldiz jo du areto batean. Euskal Afrobeat



Nafarroako jotak ekarri ditu herrira La Ribera Canta taldeak. TXINTXARRI



Sun magoaren saioarekin txundituta geratu ziren herriko gaztetxoak. TXINTXARRI



doinuak ekarri dituzte Manuel Lekuona kultur etxeko oholtzara. TXINTXARRI



Mikel Bermejo lasarteoriatarren eta JJ Vaqueroren bakarriketekin barrez lehertu ziren ikus-entzuleak. TXINTXARRI



'Salam' antzezlana gozatu dute etxeko gaztetxoek eta haien gurasoek. TXINTXARRI



Lierni Rekondo eta Ane Labaka herritarrak (zutik dauden bi pertsonak), San Pedro eguneko bertso jaialdian, kantuan. TXINTXARRI

**Carrefour
express**

Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria

Gora Lasarte-Oria!
bixtresna elektrikoak

2,99

Herriari kolorea eman diote

Egoerara egokitutako jaiak

COVID-19ak eragindako egoerara moldatutako Sorgin Jaiak ospatu ditu herriak aurten ere. Ekainaren 24tik hasi eta 28ra arte, egunean ekintza bat edo bi burutu dira herrian barrena: hitzaldiak; kuadrillen jaitsiera eta txupina; manifestazioa, tupper bazkaria eta bingo musikatua; kontzertu akustikoak; eta orientazio jolasak. Ekainaren 29an danborrada egin behar zuten Andatza plazatik abiatuta, baina bezperan gertatutako bi eraso matxista tarteko, antolakuntzak bertan behera utzi zuen ekintza hori, eta aSUnak neska* gazteen talde feministak deitutako elkarretaratzearekin bat egin zuen. Beste behin, deitzaileek gogorarazi behar izan zuten "eguneroko borroka" dela indarkeria matxistaren aurka egin beharrekoa, eta, bide horretan, indarkeria matxistaren aurka euren ahotsak batuz gaitzetsi zituzten azken egunetan herrian gertatutako erasoak.



Okendora iristean, Dinbi Banda batukada taldeko kideak zain zituzten herriko kuadrilla gazteek. TXINTXARRI



Isla plazatik eta Okendora arte, Lasarte-Oriako kuadrilla ugarik giro ederran egin zuten



Burujabetasunen gaineko hitzaldia eskaini zuen Mikel Olaizek hilaren 24an. SORGIN JAIK



Elkartasun eguna izan zen ekainaren 26a. Eguerdian euskal presoek aldeko manifestazioa egin zuten. TXINTXARRI



Palestinari buruz solastu ziren herritar batzuk ekainaren 25ean. TXINTXARRI



jaitsiera ekainaren 25ean, ostiralarekin. TXINTXARRI



Ekainaren 27an, kontzertu akustikoez gozatu zuten herritarrek. Adibidez, Maialen Aristegiren emanaldiaz. TXINTXARRI



Benedika mendi inguruan orientazio jolasak egin zituzten ekainaren 28an. TXINTXARRI



200 lasarteiatar inguruk salatu zituzten eraso matxistak pasa den asteartean, ekainaren 29an. TXINTXARRI



LUIS CAR

autobusak

Gora Lasarte-Oria! Gora San Pedro Jaiak!

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

Uzturre plaza 1, LASARTE-ORIA • Tel./Faxa: 943 36 63 16 • Mugikorra: 629 461 897 • luiscarbus62@hotmail.com



Patxi Manchado eta Felixi Tapia, 'Gure Patxintxiak' 2021eko sarituak, eta Beaz Egizabal ekitaldiko aurkezlea. TXINTXARRI



Ekitaldia amaitzean, Tapiak eta Manchadok senideekin argazkiak atera zituzten. TXINTXARRI

Herriko maitagarrienei, merezitako omenaldia

Ttakun Kultur Elkarteak, udalaren laguntzaz, adin ezberdinetarako ekintzak antolatu ditu egunotan. 'Gure Patxintxiak' saria jaso dute Felixi Tapiak eta Patxi Manchadok, San Pedro egunean; asteazkenean, berriz, gazteek tupper janaz eta jolas arratsaldeaz gozatu dute

Txintzarri

Aurten ez da txupinik izan, ez da San Pedro Jailetako omendurik izan. Baina Ttakun Kultur Elkarteak eta udalak 65 urte baino gehiago duten gure herritar maitagarriari omenaldia egin diete *Gure Patxintxiak* sariaren bitartez.

Lehia handi baten ostean, Felixi Tapia eta Patxi Manchado izan dira 2021eko irabazleak. Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan jaso dute oroigarria, haien gertukoaren aurrean.

Beaz Egizabalek zuzendutako ekitaldian, ekainaren 29koan,

Tapia eta Manchadoren bizitzako hainbat pasarte ezagutu ahal izan zituzten bertaratutakoek. Bi omenduek gogoz hartu zituzten aurkezlearen hitzak eta eurek ere hartu zuten hitza une batzuetan. Anekdotak hunkigarriak, aldarrikapen uneak, barreak, algarak... Denetarik izan zen, baita bi omenduei zuzendutako txaloak ere.

Saria banatzeko ordua iritsi zenean, Tapiak bere biloba eta EH Bilduko zinegotzi den Jon Martinen eskuetatik jaso zuen oroigarria; Manchadori, berriz,

Lasarte-Oriako Agustin Valdivia alkateak jantzi zion txapela.

Bi omenduek esker hitzak izan zituzten eurengatik bozkatu dutenei eta Ttakun KEk ere eskerrak eman zizkien lehia txiki horretan parte hartu zuten guztiei.

Tupper jana eta jolasak

Lasarte-Oriako LH3 eta 6. maila arteko gazteek asteazkenean, ekainaren 30ean, tupper jana egin zuten Landaberri-Garaikoetxea ikastetxean. Giro onean bazkaldu ostean, jolasak eta bingo musikatua ere egin zituzten.



Tupper jana egin ostean, ederki jolastu ziren gaztetxoak. TTAKUN KE

Herritarrak, San Pedro Jaiean gose

San Pedro Jairik izan ez arren, herritarrek jai giroa eraman dute herriko kaleetara. Ekainaren 28an, herritar talde batek Sorgin dantza inprobisatua egin zuen Okendo plazan. San Pedro egunean diana berezia ere egin zuten txistulariek.

Horrez gain, San Pedro eguneko meza ospatu zen parrokan eta herritar ugari hurbildu ziren. Erketz EDTk agurra dantzatu zuen.



Sorgin Dantza inprobisatua, Okendo plazan. EDORTA ALDAZABAL



Txistulariak kaleak alaitzen. TXINTXARRI



Meza nagusia izan zen San Pedro egunean. TXINTXARRI

Ezagunak dituzte sanpedroak

TXINTXARRI-k Lasarte-Oriako San Pedro Jaieko gaineko galdera sorta batekin egin du ekaineko lehiaketa. Ekainaren 25etik 30era bitarte parte hartu ahal izan dute herritarrek aldizkariaren web atarian. Hamar galderak ondo erantzun dituztenen artean, Javi Yubero izan da saritua



3 ZAPIAK

IRABAZLEA:

- Nuria Palacios
- Permin Lazkano
- Keila Rubio



IRABAZLEA:
Javi Yubero

Txintxarri

61 irakurle baino gehiago izan zarete Lasarte-Oriako San Pedro Jaiei buruzko *Zenbat dakizu San Pedro Jaiez?* lehiaketako hamar galdera erantzutearen erronka burutu duzuenak. Eta horietatik guztietatik hamasei parte-hartzailek asmatu dituzte

prestatutako galdera guztiak. Hamarrak asmatu dituzten guztien artean, Errigorako otar bat zozkatu dugu, eta Javi Yubero izan da irabazlea. Parte-hartze hutsak ere izan du saria; horrela, lehiakide guztien artean Sorgin Dantzako hiru zapi zozkatu ditugu, eta Nuria Palacios,

Permin Lazkano eta Keila Rubio izan dira sari horren irabazleak. Zorionak bioi, eta gozatu ditzazuela sariak! Eta zuei, parte-hartzaile guztiei, eskerrik asko!

Datozen hilabetetarako lehiaketa prestatzen ari da TXINTXARRI aldizkaria. Adi, datozen astetan iragarriko baitugu!

Zenbat dakizu San Pedro Jaiez?

lehiaketa

Hamarretik hamar asmatu ez dituzuenontzat, erantzun zuzenen zerrenda prestatu dugu:

1. Noiz da San Pedro Eguna? Ekainak 29.
2. Zein herritar omendu zuen udalak 2006. urtean? Felix Telleria.
3. Nola izena dute herriko jai alternatiboek? Sorgin Jaiak.
4. Zenbat buruhandi ditu Lasarte-Oriako erraldoi eta buruhandien taldea? Sei.
5. Zein herritarrek irabazi dute Gure Patxintxiak sariak? Felixi Tapiak eta Patxi Manchadok.
6. Herriko zein elkarte antolatzen du urteroko sardina jana? Aterpea merkatarien elkarteak.
7. Zein egunetan egiten du ATLOK helduen danborrada? Ekainaren 28an.
8. Zein urtetako San Pedro Jaietan atera genuen argazki hau? 1995. urtean.
9. Nor da Sorgin Dantzako zortzikoteko kapitaina? Mikel Eskisabel.
10. Zer janzen dute herritarrek San Pedro Jaietan? Blusa.



Ttakun
Kultur Elkartea

Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

ERRIGORAKO OTAR EDER BAT zozkatuko dugu izena ematen duzuen bazkideen artean.


* Eman izena uztailaren 25a baino lehen.



harpidetza@ttakun.eus helbidean, 943 37 14 48 zenbakira deituta eta 646. 82 44 66 (whatsapp)

GIPUZKOAK BADU

ETORKIZUNA



Zu bezalako 720.000
gipuzkoarrei esker,

**Europar
desberdintasun
maila txikienetariko**
duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

ETORKIZUNA
ERAIKIZ
#GipuzkoarKonpromisoa



Eskuratu

Lasarte-Oria 2021

1.000€ko saria.
Eta zu bazara sariduna?

Kontsumitu ezazu Lasarte-Orian
uztailaren 1etik 16ra, eta parte
har ezazu erosketa-bonoen
zozketan

1.000€

eta gastatu 3 ordutan

Kontsulta ezazu establezimendu parte-hartzaileen zerrenda

ALBA MODA	VENTANAS ALCAR	ORMAZABAL LORADENDA
ARKUPE TABERNA	MASAJISTA RAKEL	OSTEOPATÍA NOELIA CALERO
BAZAR ABREU	MERCERÍA ARITZA	FERRETERÍA-CERRAJERÍA JOSEMA
BIDEO LAGUNAK	OIHANA ESTETIKA	ADMINISTRACIONES BARDAJI
NOGUES MODA	HIRU ALDETA TABERNA	VIÑA DEL MAR KAFETEGIA
MAYA LENTZERIA	PELUQUERÍA BEA	PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA
MERCERÍA OLMÍ	DULCE TENTACIÓN	ADMINISTRACION DE FINCAS MILLA
NOAOA BIDAIK	AVENIDA TABERNA	PUERTAS Y VENTANAS ZURLAN
ÓPTICA LIZARRI	ZAPATERÍA ITURBE	IMAGINE JANTZI DENDA
DOAL SALUD	CLÍNICA DENTAL ALDAZ	COCINAS, BAÑOS Y REFORMAS CLOVER
BAR LASARTE	OLA ENMARCACIÓN	PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA
PELUQUERIA MAY	ORBELA EKODENDA	CLÍNICA PODOLÓGICA AMAIA OLONDRIS
GESTORÍA BETELU	URRUZOLA MERTZERIA	SILVIA LUIS ARBIZU ADMÓN. DE FINCAS
NATURHOUSE	FERRETERÍA SUKOA	ZUBIETA MOTOR
ORUE BOTIKA	CARREFOUR EXPRESS	BIZKER RÓTULOS
MERCERÍA MAUXA	PERFUMERIA MAIANE	CENTRO DE MASAJE KIMA
HAUNE INTERIORISMO	CAFÉ-BAR BUENETXEA	KAIZEN MUEBLE Y DECORACIÓN
HALCÓN VIAJES	LOTERÍA IZAGUERRI+C	SORAYA GALLEGO MICROPIGMENTACIÓN
INMOBILIARIA RK	BERASATEGI KAFEAK	ELECTRICIDAD ARREGUI
EGUZKI TABERNA	AITONAK OKINDEGIA	LOGOPEDIA HITZ-KIRIBIL
ÓPTICA IRIGOYEN	PELUQUERÍA MARBELL	ARTESANÍA INÉS FLORES
MABEL MODA	ARTSIER FOTÓGRAFO	NORTH TEAM NUTRIZIOA
BAR ORIA-TXIKI	BAR-CAFETERÍA BUS	ARAETA SAGARDOTEGIA
CALZADOS LEDER	DECO 75 TEXTIL HOGAR	MULTIOPTICAS LASARTE
PELUQUERÍA MANI'S	ADATS ORRAZTEGIA	SANTANA INFORMÁTICA
YOGA LASARTE	VENTANAS ISU LEIHOAK	GIMNASIO SAITO

LASARTE-ORIAN BIZI,
LASARTE-ORIAN EROSI



Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO

Autobus zerbitzu berria eskualdearentzat

Uztailaren 1etik aurrera, Lurraldebusko autobus unitate berriak dabilta Beterri-Buruntza eta Tolosaldea eskualdeetan. 30 ibilgailu dira, eta ekainaren 29an aurkeztu dituzte; berrikuntzen artean, airea iragazteko sistemak nabarmendu dituzte arduradunek

Txintxarri

Beterri-Buruntza eskualdeko herriak (Lasarte-Oria barne) Donostiarekin lotzen dituzten Lurraldebus zerbitzuko autobusak berri egin ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Erakunde horretako Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa diputatu Rafaela Romerok eta herriko alkate Agustin Valdiviak unitate berrietako bat erakutsi zuten Okendo plazan, ekainaren 29an, asteartearekin, 16:00etatik 19:00etara. 30 autobus berri ari dira eskualde horretan lanean, eta Tolosaldea ere bai, uztailaren 1etik aurrera, ostegunez.

Romerok azaldu zuenez, flota berriko hiru ibilgailutatik bi teknologia hibridoko unitateak izango dira: "Airea iragazteko sistema berrienak dituzte; funtsezkoa iruditu zaigu COVID-19aren ondorioz herritarrek egin dizkiguten segurtasun eskaerei erantzutea". Horren

ondorioz, Beterri-Buruntzako emakida "seguruagoa" dela azpimarratu zuen diputatuak. "Babes handiagoa eta zerbitzu hobekak eskaintzen ditu".

Lasarte-Orian egin zuten aurkezpenean, autobusak barrutik ikusi zituzten Romerok eta Valdiviak. Airea iragazteko eta berritze sistema ez ezik, berrikuntza gehiago ere erakutsi zizkieten politikariek kazetariei: esate baterako, mugikorrek eta bestelako aparailu elektronikoen bateriak kargatzeko USB portuak. Horrekin batera, biek nabarmendu zuten autobus berri horiek eserleku gehiago dituztela, bidaiariak ahalik eta erosoan joan daitezten.

AIREA IRAGAZTEKO "SISTEMA BERRIENA" DUTE ESQUALDEAN ZERBITZUA EMANGO DUTEN AUTOBUSEK

Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa Sailak herritarrekin duen "konpromisoa" goraiatu du Romerok. "Helburua da Gipuzkoa konektatuagoa, berdinzaleagoa, jasangarriagoa eta inklusiboagoa lortzea".

Eskaerari erantzuna

Valdivia "pozik" dago, Lasarte-Oriak "duela urte asko" egindako eskaerari erantzun diolako azkenean Gipuzkoako Foru Aldundiak. "Eskualdeko emakidaren erabiltzaile nagusiak dira gure herritarrak; guztira, %70", zehaztu du alkateak. Okendo plazara ekarritako ibilgailua ikusi ostean, adierazi du autobusak "seguruagoak eta erosoagoak direla", eta batez ere, "ingurumenarekin konpromisoa" dutenak. "Foru Aldundiko Mugikortasun sailak eskualdearen beharrak aztertu ditu, eta nabarmena da ibilgailu flota berri honek erantzuten diela adierazitako beharrei".



Agustin Valdivia alkatea eta Gipuzkoako Mugikortasun diputatu Rafaela Romero. TXINTXARRI



Autobus berri barrualdea ikusi zuten bi politikariek. TXINTXARRI

Ostadarren koloreak kendu dizkiote, koloreztatu eta gutxira

Harrotasunaren Nazioarteko Egunarekin bat egin du Lasarte-Oriako Udalak. Hainbat ekintza burutu ditu

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak, ekainaren 28ko Harrotasunaren Nazioarteko Egunarekin bat eginik, Euskotrenetik Mirentxura igotzeko eskailerak koloreztatu ditu, Aniztasunerantz eskalatzen lelopean. Horrekin batera, ekainaren 30eko azokan, ostadarren koloreko telazko poltsak banatu zituzten, eta ostadarren koloreko bandera ere eskegi zuten udaletxeko balkoian.

Ekintza horien bitartez, Harrotasunaren Nazioarteko



Mirentxuko eskailera. TXINTXARRI

Egunarekin bat egiteaz gain, lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualen eskubideak aldarrikatu eta LGTBI+ kolektiboari ikusgarritasuna ematea dute helburu.

Ekainaren 29an, aldiz, udalak bidalitako ohar baten bitartez jakinarazi zuten eskaileretako koloretako biniloak kendu zituela baten batek, eta, Agustin Valdivia alkateak gaitzetsi egin du "LGBTBI+ kolektiboaren eskubideekiko intolerantzia" adierazten duen ekintza hori. Azaldu du gisa horretako jarrerak kolektibo horretako pertsonen eskubideekiko "aitortza eza" adierazten dutela.

Ekainaren 25eko ezohiko udalbatzarrean Gehitu elkartearen LGTBI harrotasunaren nazioarteko eguna, ekainaren 28koa manifestua onartu zuten, aho batez.



TXINTXARRI

Protestan jarraitzen dute

Udal eraikinak garbitzen dituzten zenbait langilek protesta ekitaldia egin zuten ekainaren 25ean, udaletxearen aurrean, ELA eta ESK sindikatuek deituta. "Lanaldi duina" aldarrikatzearekin batera, Lasarte-Oriako Udalarari eskatu diote murrizketarik ez egitea garbiketara zerbitzuan. Auzia konpontzeko "borondate politikorik ez izatea" egotzio diote udalari.

Ttakun KEren txokoak eta udalekuak martxan

Uda iristearekin batera, gustura hartzen dituzte haurrek udako aisialdiko eskaintzak; ikasturtea amaitu ostean, Udako Txoko zein udaleku itxiak noiz hasiko zain egoten dira. Aurten ere Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako eskaintzetan parte hartuko dute hainbatek

Txintxarri

Ttakun Kultur Elkartea, sortu zenetik, dibertimendua eskaintzen aritu da, urtez urte. Betiere, noski, hezkuntzaren ikuspegia ardatz hartuta, eta euskararen erabilera sustatzeko helburu nagusiarekin. Elkarteak 30 urte betetzen dituen honetan, gogora ekarri dute lasarteoriatar ugari izan direla, bestek beste Busti Blairekin gozatu dutenak, baita olinpiadekin, edota suhiltzailez mozorrotuta herriko kaleetan barrena desfilatuta dutenak. Jakitun dira, urte luze horietan bizitako esperientziak sortutako ilusioa gurasoengandik seme-alabengana transmititzen dela, eta, horri eutsi asmoz, aurten ere bizipoz horri eutsi nahi dio kultur elkarteak. Aitortu dute COVID-19ak eragindako pandemia garai hauetan erronkari eustea ez dela erraza, baina ikasturte luzeak eragindako estresa askatzeko unea iritsi dela azaldu dute: "Taldea jolasteko eta naturaz gozatzeko garaia da".

Unean uneko osasun egoerak aurtengo aisialdi eskaintzaren formatua baldintzatu duela azaldu dute antolatzaileek, eta jakinarazi dute unean uneko egoerara moldatzen joatea izan dela elkartearen iparrorratza: "Osasuna jarri dugu lehen ilaran, baina haurren aisialdirako behararen eta Ttakun Kultur Elkartearen helburu orokorren parean".

Udako Txokoak prest

"Zirrarez" gogoratzen du kultur elkarteak iazko Udako Txokoetako lehenengo eguna: "Konfinamendu luze batetik genduzen, eta ume askorentzat, berriro ere lagunekin elkartzea ahalbidetu zuen aisialdi eskaintzak". Aurtengoa, berriz, iazkoaren ildo beretik joango dela iragarri du elkarteak, nahiz eta irudimenak eta ilusioak



Udako Txokoetako eta udaleku itxietako begiraleak gogotsu daude. TXINTXARRI

bere espazioak berreskuratuko dituzten.

Jakinarazi dute 50 hezitzaile baino gehiago arituko direla lanean ekainean, eta dagoeneko egin dituztela aisialdi eskaintzari hasiera eman aurretik egin behar diren formazio saio eta prestaketa lan guztiak: "Taldea egitea eta programazio dibertigarriak, originalak eta hezigarriak diseinatzea izan dira formazio saio horien helburua". Euskararen erabilera sustatzeko estrategian ere landu dituztela kontatu dute.

Uztailaren 1ean hasi dira Udako Txokoak, eta hilaren 30ean amaituko dira, eta hiru urtetik hamabi urte bitarteko ehunka lasarteoriatarrek parte hartuko dute aisialdi eskaintza horretan.

Aurten udaleku itxiak bueltan

Iazko osasun egoerak hala behartuta, bertan behera utzi behar izan zituen Ttakun Kultur Elkarteak udaleku itxiak. Aurten, ordea, aisialdi eskaintza horrekin aurrera egiteko erabakia hartu du. Lasarte-Oriako familia ezberdinekin egindako lanketaren ostean, eta

50 HEZITZAILE BAINO GEHIAGO ARDURATUKO DIRA HAUR ETA GAZTE UGARIREN AISIALDIAZ

prozesu horretan jasotako erantzun ona ikusita, eskariaren araberrako udaleku itxiak antolatzeko ahalegina egin du kultur elkarteak.

Gauzak horrela, Lasarte-Oriako gazteek udalekuez gozatzeko aukera izango dute, Euskal Herriko txoko ezberdinak ezagutzuz. LH3-4 mailakoak Astigarragan bizituko dituzte esperientzia ezberdinak. Aurreratu dutenez, zirkua izango da udalekuetako gaia, eta uztailaren 12tik 30era bitarte egongo dira bertan, hiru taldetan banatuta. LH5-6 mailakoa, berriz, Azpeitiko Loiola etxera joango dira, uztailaren 2tik 8ra bitarte.

Ziur denek ala denek esperientzia zorgarriak bizi eta elkarbanatzeko aukera izango dutela. Urtero bezala, kalitatezko aisialdian parte hartzeko aukera izango dute, euskaraz.

Lasarte-Oriako
BERTSO ESKOLA

earra!
BERTSO ESKOLA

Kulturari eta bertsoaritzari leiho bat zabaltzen

Lerro hauen azpikoaren gisako bertsoak irakurri ahal izan dituzte atal honetan 2020-2021 ikasturtean, herriko Earra bertso eskolan aurtengo ikasturtean errimekin, doinuekin, hitzekin eta euskararekin lanean eta jolasean ari diren ikasle finen eskutik. Eskolak eta TXINTXARRI-k martxan jarritako egitasmo honen helburua da kulturari leiho bat zabaltzea.

Ekaineko bertsoa

Iritsi zaigu ekaina eta
iritzi zaigu udara
aurtengo hontan bertso kantari
ederki ibili gara
jolastu, gozatu ikasi ta
gero atera plazara
Animatu! ta etor zaitezte
gure bertso eskolara

LH6 taldea: Kimetz, Leire, Luken eta Oier

Ekainean 63 kasu atzeman dituzte Lasarte-Orian

Maiatzean baino 54 kutsatze gutxiago detektatu dituzte ekainean Lasarte-Orian: guztira, 63 -aurreko hilabetean 117 atzeman zituzten-. Urteko seigarren hilabeteko azken egunean, 30ean, lau positibo diagnostikatu zituzten gure herrian, eta intzidentzia-tasa metatua 152,27 izan zen. Ekainaren 23an eta 24an eremu berdera (60 edo tasa baxuagoa) sartzeaz geratu zen herria, baina azken egunetan igotzen ari da intzidentzia, apurka-

apurka. Hilabete batean atzemandako kasuei dagokienez, 2020 uztailetik ez ziren horren gutxi diagnostikatu -aurtengo martxoan 65 zenbatu ziren, eta gehiago beste guztietan-.

Eskualdean gero eta kasu gehiago atzeman dituzte ekaineko azken egunetan, Hernaniko agerraldiagatik batez ere. Horren ondorioz, herri hori eremu gorrian sartu da. Beste bost udalerririk -Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil-, aldiz, eremu horian daude. EAE mailan, erkidegoko intzidentzia-tasa metatua igotzen ari da; ekainaren 30ean 121,70 izan zen.

Urdanpileta, Umore Ona txapelketan garaile

Hernani taldeko Julen Deskargarekin batera Goizuetako txapelketa irabazi du herriko pilotari gazteak. Amasa-Villabonako Santio txapelketan eta Hernaniko Zikuñaga Papelera torneoan ere lehiatuko dira Intzako pilotariak

Txintxarri

Gipuzkoako federazioko txapelketen egutegia amaitu arren, udako lehiaketak eta pilota jaialdiak hasi dira. Goizuetako Umore Ona, Hernaniko Zikuñaga Papelera edo Amasa-Villabonako Santio txapelketan parte hartuko dute Intza elkarteko pilotariak.

Goizuetako V. Umore Ona bikotekako txapelketa, esate baterako, amaitu da. Bertan Peru Urdanpileta gaztea kadete mailako txapelketa izan da, Hernaniko Julen Deskarga lagun izan duelarik.

Eskuz binaka eta pala modalitatean Nafarroako eta Gipuzkoako 112 pilotarik parte hartu dute txapelketan, horien artean, Peru Urdanpileta herritarrak. Ekaina 2an jokatu ziren txapelketako lehen kanporaketak Goizuetako eta Aranoko pilotalekuetan.

Ekainaren 5ean eman zion hasiera txapelketari Deskarga-Urdanpileta bikoteak. Betelu



Peru Urdanpileta, eskuinean, Umore Ona torneoko txapela eta sariarekin. RUFINO REKALDE

taldeko Sotil eta Goikoetxea izan zituzten arerio eta 16-22 gailendu ziren.

Ekainaren 18an, Gazteleku Gaztañaga eta Beroz 22-20 garaitu ostean, lortu zuen bikoteak finalerako txartela.

Ekainaren 26an, berriz, Bortzirriak taldeko Orbegozo eta Etxabide izan zituzten arerio finalean. Urdanpileta-Deskarga bikoteak ongi neurtu zituen aukariaren indarrak eta 22-16 irabazi zuten.

Garaikurra lortu ostean, ez du atsedetik izan Urdanpiletak. Izan ere, aste honetan hasi berri den Zikuñaga Papelera txapelketan lehiatuko baita. Torneoa uztaillaren 1ean hasi eta hilabete osoan zehar jokatu da, Hernaniko pilotalekuan.

Zikuñaga Papelera torneo

Txapelketa horretan Manterola izango du lehiakide, eta kadete 1. mailan arituko dira.

Lehen kanporaketa uztaillaren 8an jokatu dute Gazteleku Gaztañaga eta Arrillagaren aurka. Ez da txapelketa horretan parte hartuko duen herritar bakarra izango. Intzako beste hiru kide ere izango dira lehian: Haritza Diaz de Gereñu eta Pedro Elosegi kadeteak eta Jon Pello Artetxe seniorra.

Diaz De Gereñu-Elosegi bikoteak 2. mailako kadeteko lehian aurrera egitea izango du helburu. Lehen neurketa Hernaniko Iturbe eta Mundarroko Goñiren aurka izango dute, bihar, uztaillaren 3an, 11:00etatik aurrera.

Senior mailako Artetxek, berriz, txapela berriro janztea du buruan. Iaz Intxurre elkarteko Irazustabarrenarekin batera eskuratu torneoko txapela.

Aurten EPLEko Aranguren izango du lagun, eta guztia emateko prest agertu da herritarra. Hala ere, partidaz partida ikusi beharko dela

adierazi du. "Sei hilabete hauetan talde batzuk entrenamenduak egiteko batu dira eta denboraldi amaieran ikusi den bezala, aurre hartu digute".

Intzako pilotariak oraindik ez daki senior mailako txapelketako egutegia zein izango den, ezta zein aurkari izango duten lehen kanporaketan ere.

Santio txapelketatik kanpo

Asteburu honetan, beraz, atsedena izango du Artetxek. Baina aurrekoan, ekainaren 25ean, Amasa-Villabonako Santio txapelketako final zortzirena jokatu zuen bere taldekide Elolarekin batera.

Zazpi Iturriko Zabala eta Beloki izan zituzten aurrez aurre neurketan, eta amezketarrak izan ziren nagusi.

Zabala aurrelariak eraman zuen partidaren pisua eta erritmoa; Beloki lasai ibili zen atzealdean eta Intzako kideek, berriz, ez zuten asmatu, eta Belokiren erasoei aurre egin ezinik ibili ziren.

Ondorioz, 22-5eko markagailuarekin, txapelketa horretatik kanpo geratu da Intzako bikote seniorra.

JON PELLO ARTETXE SENIORRA, ZIKUÑAGA PAPELERA TORNEOKO TXAPELA BERRIRO JANZTEKO PREST

Rekondo eta Furundarena, Espainiako onenen artean

Rekondok diskako proban Gipuzkoako historiako bigarren markarik onena egin du: 46,12 metro

Txintxarri

Ostadar Atletismoa saileko Mainer Rekondo eta Naroa Furundarena Espainiako atletarik onenen artean lehiatu ziren ekainaren 26an eta 27an, Getafen antolatutako Espainiako txapelketan.

Rekondo zein Furundarenak proba bakarrean parte hartu zuten eta biak finalerako sailkapena lortu zuten; beraz, Espainiako zortzi onenen artean izan ziren. Horregatik, Ostadarreko kideak pozarren daude Getafen lortutako emaitzekin.



Getafen izan zen taldea. OSTADAR ATLETISMOA

Rekondo disko-jaurtiketako proban seigarren postuan sailkatu zen. Bigarren saiakeran 46 metro eta 12 zentimetroko jaurtiketa egin eta bere marka bi metro eta erdi ontzeaz gain, Gipuzkoako

historiako bigarren markarik onena lortu zuen herritarrak.

Jauzi hirukoitzeko proban, orpoko mina tarteko, zazpigarren postua eskuratu zuen Furundarenak, 12,40 m.

Gipuzkoako txapelketa

Donostiako miniestadioan, berriz, Gipuzkoako adin txikikoen txapelketak jokatu dira eta enara Gonzalez eta Mainer Abete herritarrak izan dira lehian.

Biak izan ziren podiumean. Gonzalezek txapela eskuratu zuen 20 urtez azpiko luzera-jauzian marka onduz, 5,72 m. Abetek, berriz, brontzeko domina eskuratu zuen maila bereko 100 m. lasterketan, bere marka onenetik gertu: 13"05. Asteburu honetan, Gonzalez Espainiako 20 urtez azpiko txapelketan lehiatuko da.



OSTADAR IPAR MARTXA

Ibilaldiarekin ikasturtea amaitu

Ostadar Ipar Martxako taldeak ekainaren 26an ikasturteari amaiera eman zion. Taldeko kideak Okendo plazan bildu eta Lasarte-Oriako mugen ibilbidea egin zuten. 4 orduko martxa egin ostean, indarrak berreskuratu zituzten Larre jatetxean. Bertan, Rosa Ormazabal taldeko arduradunari oparitxoak egin zizkieten, eta irailera arte agur esan zioten.

Azken etapak saririk gabe utzi du Etxeberria

Junior mailako Gipuzkoako Itzulian atariko erlojupekoan eta Andoain-Andoain etapan irabazle izan da Buruntzazpi txirrindularitza eskolako Haimar Etxeberria. Mendiko maillota eta erregulartasuna lehiatzen ere izan da gaztea

Txintxarri

Ekainaren 25etik 28ra, junior mailako Gipuzkoako itzulia jokatu zen. Buruntzazpi Txirrindularitza eskolako juniorrak zein Viveros Anton taldeko Ander Altuna herritarrak parte hartu zuten itzulian.

Buruntzazpiko Haimar Etxeberria bi etapatan izan zen podiumeko gorenean eta mendiko onenenaren saria ere jaso zuen Andoain-Andoain proban.

Azkoitia-Azkoitia atariko probarekin eman zitzaion hasiera txapelketari ekainaren 25ean. 3,8 kilometrotako erlojupekoa izan zen.

Etxeberria izan zen azkarrena, 6 minutu eta 57 segundo behar izan zituen ibilbidea egiteko.

Andoain-Andoain bigarren etapan ere podiumeko lehen mailara igo zen gaztea.

Eraso ugariko lasterketa izan zen ekainaren 27an lehiatutakoa. 76 kilometroan Carbayeda taldekide eta Ander Altuna herritarrarekin batera buruko taldean sartu zen Etxeberria.

Pixkanaka taldea txikitzen joan zen; hamalauko bat iritsi zen Andoaingo helmugako zuzenera, Buruntzazpiko Etxeberria eta Carbayeda barne. Esprintean, Etxeberria izan zen garaile. Mendiko saria ere jaso zuen.



Haimar Etxeberria, Gipuzkoako itzuliko atariko probako podiumean. GTXF

Gainera, sailkapeneko bosgarren postura igo eta mendiko lehiaren bigarren izatea lortu zuen gazteak.

Tamalez, itzuliko azken egunean, Lazkao-Lazkao lasterketan Etxeberria ezin izan zuen lehiaren sartu eta podiumean egoteko aukerak galdu zituen.

Lehenen artean

Hala ere, lehenen artean izan zen Etxeberria. Sailkapen orokorrean seigarren postuan amaitu zuen Itzulia; mendiko

eta erregulartasuneko sarian, berriz, bigarren izan zen.

Taldekide Carbayeda sailkapeneko hamalaugarren postuan amaitu zuen lehiaketa eta Daniel Fursenkok, sailkapen orokorreko 68. postuan eta junior lehen urteko 26. postuan. Mikel Orbegozok ere parte hartu zuen proban. Viveros Anton taldeko Altunak, berriz, 38. postua eskuratu zuen.

Bestalde, Buruntzazpiko Adur Tapia eta Eneko Aranguren kadeteak Gaztetxoak Torneoko sarian lehiatu ziren.

Buruntzaldea IKTko igerilariak txapelketetan, jo eta su

Markak ondu eta taldeko errekor berriak ezarri dituzte. Sukunza lehengo lehian da alebin mailako Euskadiko txapelketan

Txintxarri

Euskal Herriko alebin mailako Udako Txapelketa burutu zen ekainaren 26an eta 27an, Getxon. Buruntzaldea IKTko Jurgi Sukunza lehengo lehian izan zen txapelketa horretan. Nahiz eta urduri egon, bere marka pertsonala ondu zuen parte hartutako bi probetan.

Ekainaren 26an, proba bakarra egin zuen Sukunza herritarrak, 400 m. libre proba. Buruntzaldea IKTko prestatzaile Borja Apeztegiak azaldu duenez, nahiz eta zortzigarren sailkatu, asteburuko proba onena izan zen. "4:44,48an utzi zuen kronoa, bere aurreko marka 10 segundutan hobetuz eta, aldi berean, taldeko 14 urteko errekor berri bat ezarri".

Igande goizean, 1.500 metro libre proba egin zuen igerilari gazteak. Bosgarren sailkatu zen 19:25,35 marka eginez.

"Urduritasuna batez ere proba honetan nabaritu zitzaion eta ziurrenik horrek emaitzan zerikusia izan zuen", adierazi du Apeztegiak.

Azkenik, ekainaren 27an, 200 metro libre probari aurre egin zion Buruntzaldea IKTko igerilariak. Horretan ere marka pertsonal berria ezarri zuen, 2:16,53 eta zortzigarren postuan amaitu zuen lehia.

Azkenera arte, markak ontzen

Ez da hau jokatu zuten txapelketa bakarra izan, absolutu mailako kontrol proba ere izan zen



Jurgi Sukunza igerilaria. TXINTXARRI

ekainaren 29an. Buruntzaldea IKTko Aintzane Sarobe, Unai G. Somovilla, Eneko Elizasu eta Nora Imaz igerilariak izan ziren lehiaren. Nahiz eta proba guztietan ongi lehiatu, honakoetan euren markak ondu zituzten:

- Aintzane Sarobe: 100 m. bizkar, 1:05,12. 17 urtekoen mailako taldeko errekorra ere bada.
- Unai G. Somovilla: 50 bular, 32,28. Maila absolutuko taldeko errekorra.
- Nora Imaz Igea: 800 libre, 9:26,35.

Taldeko prestatzaile Borja Apeztegia pozik dago igerilariak egindako lanarekin. "Garrantzia handiko marka da Norarena, urtean zehar ezin hobetarik ibili baita", gaineratu du.

Asteburu honetan, Garazi Etxeberria, Izaro Audikanak eta Miren Sarobek infantil mailako Euskadiko txapelketan parte hartuko dute, Galdakaon.

Ostadar SKT eta Texas Lasartearra, Donosti Cupean

Uztailaren 5ean jokatu dira lehen partidak. Michelin kirol gunean ere norgehiagokak ikusi ahalko dira

Txintxarri

Urtebeteko etenaren ostean, Donosti Cup lehiaketak Gipuzkoako zelai ezberdinak nazioarteko futbol taldeez beteko ditu uztailaren 5etik 10era. Lasarte-Oriako Michelin kirol-

gunea izango da egoitzetako bat eta Lasarte-Oriako taldeak ere izango dira bertan lehiaren.

Ostadarreko futbol sailak hiru talde aurkeztuko ditu. B16 mailako taldeak hiru partida jokatuko ditu D sailkapen

multzoan. Arerioak Orlando City, Racing Barcelona eta Castilla ADC izango dira. Partida guztiak etxetik kanpo jokatuko ditu.

B14 mailako taldeak ere ez du Michelin jokatzeko aukerarik izango. E taldea osatzen duten Athletic Sant Just, Lengokoak SD eta Kostkas Aren aurka neurtuko ditu indarrak.

K taldean izango da, berriz, B13 mailako taldea. Harekin batera Martutene KE B, Top Teams Lleida A eta Vasconia



Donosti Cup lehiaketako irudia. TXINTXARRI

CD taldea izango dira lehiaren. Partida bat ere ez du taldeak Lasarte-Oriako izango.

Hala ere, aipatu bezala, Michelingo kirol gunean ikusi ahalko dira partidak. Horietako bat Texas Lasartearra taldeko B12 mailako taldearena izango da. Catalonia Warriors izango ditu aurrez aurre, uztailaren 7an, 13:00etan.

Aurretik Javi Torres AR, Zarautz KE eta Usurbil FTren aurka lehiatuko da H taldeko lehen izateko.

ZORION AGURRAK



Oier
Zorionak Oier!
Aurtengoan 4, sardina bakalau!!! Askok, beti ta ondo maite zattugu!
Muxu erraldoi bat ta ondo pasa!!!



Helene
Zorionak maitia! Muxu handi bat zure guraso eta familiaren partetik!
Askok maite zaitugu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 02	DE ORUE	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-22:00
LARUNBATA, 03	ACHA-ORBEA	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
IGANDEA, 04	ACHA-ORBEA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
ASTELEHENA, 05	URBISTONDO	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
ASTEARTEA, 06	LASA	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
AZTEAZKENA, 07	GIL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
OSTEGUNA, 08	ACHA-ORBEA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAEKO FARMAZIA: 22:00-9:00


A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

URTE OSOKO GUARDIAK APP-A eskuragarri app store edo android marketen


Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com orrialdean eskuragarri.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 2




Larunbata, 3




Igandea, 4




Astelehena, 5



Asteartea, 6



Asteazkena, 7



Osteguna, 8



OHARRA

Lasarte-Oria aldizkariko harpidetza

Lasarte-Oriako elkarte eta eragileek argitaratutako Lasarte-Oria aldizkariak bere 83. zenbakia argitaratu du ekainean. Lasarte-Oria aldizkariaren helburua, besteak beste, Lasarte-Oriako historia berreskuratu eta transmititzea da. Aldizkariko harpidedun diren herritarrek etxean jasoko zuten dagoeneko eta bertan dauden herriko elkarreen berriak edo artikulak historikoak irakurriko zituzten.

Lasarte-Oria aldizkaria ikusgarri eta eskuragarri dago www.danokkide.es orrialdean, 48. zenbakitik aurrera. Hala ere, bada eskura izan nahi duenik ere. Horregatik, etxean paperezko zenbakia jasotzeko pausoak azaldu ditu aldizkaria kudeatzen duen Danok Kide elkarteak.

Aldizkaria doakoa da. Interesatuak aldizkarian bertan aurki daitezkeen harpidetza-ortia bete, moztu eta Danok Kide elkarte postontzian (Blas de Lezo 13 baxua) utzi behar dute. Aldizkaririk eskura ez dutenek, info@danokkide.es helbidera bidali dezakete eskaera. Mezuan aldizkaria jaso nahi duen pertsonaren izena eta helbidea zehaztu behar direla nabarmendu du Danok Kide elkarteak.

Urrezko ezteiak egin dituzten bazkideen izen-emate epea martxan du Biyak Batek

Biyak Bat egoitzako zuzendaritzak jakinarazi duenez, maiatzaren 15etik irailaren 15era izena eman ahaliko dute 2020ean edo 2021ean urrezko ezteiak egin dituzten elkarte bazkideek. Bazkide-txartela eta familia-liburua erakutsi behar dituzte egoitzeko bulegoan inskripzioa egitekoan.

Kiroldegian, udako ordutegia martxan

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak jakitera ematen du ekainaren 30etik aurrera udako ordutegia jarriko dela indarrean. Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra arte iraungo du ordutegi horrek.

Ordutegia honakoa izango da:

- Astelehenetik ostiralera:
 - Kiroldegia: 7:00-13:00 / 16:00-22:00.
 - Igerilekua: 7:00-12:30 / 16:00-21:30.
 - Mitxelín Kirol Gunea: 10:00-12:30 / 17:00-22:00.
- Larunbatetan:
 - Kiroldegia eta igerilekua: 9:00-14:00.
 - Mitxelín Kirol Gunea: 9:00-13:00.
- Igandea eta jai egunetan:
 - Kiroldegia eta igerilekua: 9:00-14:00.
 - Mitxelín Kirol Gunea: Itxita.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN
Garaje marra alokatzen da Golf plazan, Landaberri-Garaikoetxea ikastolaren frentean. Zabala, sarbide erraza, ekonomikoa. Harremanetarako zenbakia, 659 02 19 45.

LANA

ESKANTZUA
Zerbitzaria behar da Lasarte-Oriako erdiguneko taberna batean lan egiteko. 666 461 595.

Sukaldari bat behar da Hernaniko enpresa industrial baterako.

Zereginak: bazkariaren prestaketa eta lantokiko garbiketa. Taldeen janari prestaketan aritua izatea baloratu da. Arduratsua. kotxea beharrezkoa da Berehala hasteko. Interesatuak 628 039 676.

ESKARIA

18 urteko neska bat naiz. Unibertitate ikasketak egiten ari naiz, eta lan bila nabil ekainerako eta uztailerako, umeak zaintzen batez ere. Harremanetarako zenbakia, 688 64 38 60.

16 urteko neska bat naiz. Ekainean eta uztailan umeak ordutza zainduko

nituzke: txokoetara eramane eta jaso, ikastolako lanak egiten lagundu... Harremanetarako zenbakia, 640 10 64 40. Pertsona eskaintzen da pertsona adinuen barneko zaintzaile modura lan egiteko. Orduka ere izan daitezke Erreferentzia onak eta esperientzia du. Harremanetarako zenbakia, 622 747 833. Pertsona eskaintzen da hainbat zereginetan lan egiteko: sukaldaritzak, taberna zaintzaile, garbiketa lanak egin, pertsona

adinduak zaindu edo etxeko lanak egin. Asteburuetan ere lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 643 80 37 87. Pertsona eskaintzen da ordutza etxe garbitu edo pertsona adinuen zaintzaile modura lan egiteko prestutasuna. Harremanetarako zenbakia, 608 93 56 74. Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia, 673 55 62 89.

SALEROSKETA

SALDU
Mountainbike salgai. Beltza eta arrosa. 8 urtetik aurrerako haurtzako. Kaskoa, argiak eta osagai guztiek. Berria bezala. 150 euro. Harremanetarako zenbakia, 637 53 58 51. Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 200 euro. 646 824 466.

Bizikletari lotzeko erremolke doblea salgai. Interesik bazenu deitu

Lasarte-Oria Inongo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. **300 EURO**. Harremanetarako zenbakia, 670 20 78 14, Amaia.



Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte Geltoki kalea 4 (behea) 20160 LASARTE-ORIA G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galdari, Mikel Yarza, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak

Maren Urkizu, Olatz Castro, Egoitz Epelde, Erlantz Zeiza, Iker Lanchas, Iñigo Garcia, Olatz Bardaji eta Igone Mendizabal.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea) Tel.: 943 37 14 48 (106) WhatsApp: 646 82 44 66 publicitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte Geltoki kalea 4 Tel.: 943 37 14 48 (104) WhatsApp: 688 68 35 10 txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/33

ISSN: 1134-0053 Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 2

LASARTE-ORIA Kale antzerkia
Malas Compañías antzerki taldeak *Zirkus* obra eskainiko du. Udalak uztailleko egitarauaren barruan antolatatu dituen kale antzerkien lehen saioa izango da. Oriarte institutua, 19:00etan.

AMASA-VILLABONA Zinema kalean

Asto Erregea filma ikusteko aukera izango da, aire librean. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, euria egingo balu, Gurea zinemara lekualdatuko dute ekitaldia. Amalur plaza, 19:00etan.

ANDOAIN Kontzertua

Verde Prato eta Maren musika taldeek emanaldia eskainiko dute. Goikoplazako frontoia, 21:00etan.

LARUNBATA 3

LASARTE-ORIA Bakarrizketa
Bakarrizketen laugarren saioaz gozatu ahalko dute lasarteoriarrek. Oraingoan Alazne Etxeberria eta Miki Dekai arituko dira kultur etxeko agertokian. Saioa erdaraz izango dela iragarri dute, eta sarrerak 12 eurotan daude salgai. Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.

IGANDEA 4

ASTEASU Bisita gidatua
Asteasuko Udalak, Muskerraren Bidea egiteko, bisita gidatua eskainiko du. Elkargunea, herriko plaza izango da, goizeko 11:00etan. Ekintzan parte hartu nahi dutenek izena ematea komenigarria da, 943 69 19 07 telefonora deituz edo mezu bat honako e-mailera bidaliz: udala@asteasu.eus. Herriko plaza, 11:00etan.

ASTEASU Segaxapelketa
Julen Gabirondok, Mikel Lizartzak eta Jon Otegik Gipuzkoako Segaxapelketan parte hartuko dute. Bulano baserria, 12:00etan.

AMASA-VILLABONA Dantza emanaldia
Haatik Dantza Konpainiak *Errimak*



LASARTE-ORIA Kontzertua Aroa Lasa Letona *aRo* musikari lasarteoriatarrak kontzertua eskainiko du. *Banoa* estreineko lan laburra aurkeztuko du. Arramazka rock taldearekin egin zen ezagun herriko abeslaria. Kantaera lasai eta goxoarekin ageri da, lehen pertsonan, eta pop doinu atseginekin batera. Barruko hainbat korapilo askatzeko ariketa bezala sortu du *Banoa* azken lana, Gartxot Unsain Letona lehengusuarekin batera ekotzi du, eta bost abestiz osatuta dago. Larunbata 10, Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

bi oinetan ikuskizuna eskainiko du. Bertso eta dantza berriei osatu dute lan dibertigarri eta entretenigarria. Bertso ariketa eta jokoak dantzara eramatea da emanaldiaren berezitasuna edo ezberdintasuna. Eta bertso sorta zahar eta berriei mugimendua emanez, gaurkotatunari buruzko gogoetak egitea. Errebote plaza, 19:00etan.

ASTEAZKENA 7

ZIZURKIL Hitzaldia
Saseta auzoldegiek antolatuta, Esti Amenabarrok eta Leire Padilla Lopezek *Memoria Historikoa eta Gertuko Memoria* hitzaldia eskainiko dute. Plazida Otaño liburutegia, 17:00etan.

OSTEGUNA 8

AMASA-VILLABONA Kontzertua
Esne Beltza musika taldeak ikuskizun berria eskainiko du Amak laukotearen laguntzarekin. Errebote plazan egitea aurreikusitua dute arren, euria egingo balu, Olaederra kiroldegira lekualdatuko dute ekitaldia. Errebote plaza, 19:00etan.

OSTIRALA 9

LASARTE-ORIA Kale antzerkia
Bigarren kale antzerki saioa ikustera ateratzeko aukera izango dute herritarrek. Trapu Zaharrak konpainiak *Por hacer un favor* obra ekarriko du herrira. Oriarte institutua, 19:00etan.

AMASA-VILLABONA Ikuskizuna
Hodei magoak Harritzearen abilezia magia emanaldia eskainiko die etxeko txikienei. Amalur plazan egitea aurreikusitua dute arren, euria egingo balu, Gurea zinemara lekualdatuko dute ekitaldia. Amalur plaza, 19:00etan.

LARUNBATA 10

LASARTE-ORIA Kontzertua
Aroa Lasa Letona *aRo* musikari lasarteoriatarrak, bere estreineko lan laburra aurkeztuko du. Sarrerak 5.50 euroan erosi ditzakete interesa dutenek. Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.

ZIZURKIL Kontzertua
Neomak musika taldeak emanaldia eskainiko du. Kepa Junkera trikitilariarekin Sorginak taldean sei bat urtez ibilitakoak dira

ZINEMA

USURBIL

Ostirala: 16:30, 18:40.

Larunbata: 16:30, 18:40.

Igandea: 16:30, 18:40.

Expediente Warren: Obligado

Ostirala: 19:20, 22:20.

Larunbata: 19:20, 22:20.

Igandea: 19:20, 22:20.

Fast & Furious 9

Ostirala: 15:45, 16:45, 17:45, 18:45, 20:00, 21:00, 22:00.

Larunbata: 15:45, 16:45, 17:45, 18:45, 20:00, 21:00, 22:00.

Igandea: 15:45, 16:45, 17:45, 18:45, 20:00, 21:00, 22:00.

CRUELLA

Ostirala: 16:30, 18:40.

Larunbata: 16:30, 18:40.

Igandea: 16:30, 18:40.

Raya y el último dragón

Ostirala: 15:55, 19:35.

Larunbata: 15:55, 19:35.

Igandea: 15:55, 19:35.

Spirit-Indomable

Ostirala: 15:50, 17:00, 18:10.

Larunbata: 15:50, 17:00, 18:10.

Igandea: 15:50, 17:00, 18:10.

Operación Camaron

Ostirala: 16:20, 19:00, 20:30, 21:40.

Larunbata: 16:20, 19:00, 20:30, 21:40.

Igandea: 16:20, 19:00, 20:30, 21:40.

Neomak taldeko musikariak. Zazpi emakumek osatutako taldea da. Intxaurre pilotalekua, 20:00etan.

IGANDEA 11

ANDOAIN Antzezlan
Zanguango teatro konpainiak *Aquí va a pasar algo* ikuskizuna eskainiko du. Goikoplazako frontoia, 19:00etan.

AMASA-VILLABONA Ikuskizuna
Oinkari Dantza Taldeak eta Hila Teatroa taldeak *Gazte* izeneko ikuskizuna eskainiko dute. Euskal Dantza abiapuntu hartuta, dantza garaikidea eta dantza modernoak eta gorputz mugimendua uztartuko ditu, ahotsari eta testuari ere tokia utziaz. Errebote plazan egitea aurreikusitua dute arren, euria egingo balu, Olaederra kiroldegira lekualdatuko dute ekitaldia. Errebote plaza, 19:00etan.

OSTIRALA 16

LASARTE-ORIA Kale antzerkia
Uztailleko hirugarren kale-antzerki saioan, Eidabe taldeak *Gora Kasete* antzerkia eskaini die lasarteoriarrei. Oriarte institutua, 19:00etan.

LARUNBATA 17

LASARTE-ORIA Kontzertua
Baionako Willis Drummond musika talde aski ezaguna igoko da Manuel Lekuona kultur etxeko oholtza gainera, eta euren rock doinuak eskainiko dizkiete bertaraten diren ikus-entzuleei. Sarrerak 12 euroren truke daude salgai. Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.

OSTIRALA 23

LASARTE-ORIA Kale antzerkia
XVII. Dantza Zirkuitua izango da. *Hiru hitzetan* ikuskizuna eskainiko dute. Emanaldi hori Euskal Herriko hiru konpainien hiru piezek osatzen dute; bakoitza 20 minutukoa, eta sei artistek parte hartuko dute: Myriam Perezek, Jone Amezagak, Nerea Gurrutxagak, Oihana Vesgak, Amaia Elizaranek eta Xabier Zeberio. Herrian barrena, 19:00etan.

LARUNBATA 24

LASARTE-ORIA Kale antzerkia
Olatz Salvador musikariak bere azken lana, *Aho Uhal* izeneko ekarriko du Manuel Lekuonako oholtza gainera. Sarrerak 12 euroren truke daude salgai. Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.

UZTAILEAN ZEHAR


LASARTE-ORIA Erakusketa
Elkartea sortu berri duen Dinagu Emakume Sortzaileen Kolektiboak ekimen berri bat jarri du martxan. Kolektiboaren izaera mugikorra definitzen duen *Nomadak Gaitun* azoka ibiltariak, eta Azpeitian egingo dute lehen geldialdia. Elkarlanean, modu kooperatiboan, antolatutako azoka izango da, eta, moda, bitxigintza, dekorazio zein ilustrazioaren munduan murgilduta lanean dabilen Euskal Herriko hogeitaz emakume sortzaileen produktuak izango dira ikusgai bertan. Azokara gerturatu ezin dutenentzako erakusketa bat ere prestatu dute herriko Kool Studion. Kool Studio, dendako ordutegian.

txintxarri


Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

“KRISI GARAIAN,
PUBLIZITATEA DA
INBERTSIORIK
ONENA”

**HORREGATIK... DESKONTU BEREZIAK DITUGU
HERRIKO KOMERTZIO, ENPRESA ETA OSTALARIENTZAT**

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66 

Urbil **app**



Ezagutu gure dendetako deskontu guztiak Urbil doako App-ean.

- 20%
- 
- 
- 
- 2x1
- 15%

#Urbilover izateak bere abantailak ditu

